

Euskal literaturaren etorkizuna eta haurrak

Deia, 1983-06-11.

Hasi gaitezen hasieratik: literaturaren hastapenetan haurra ageri da.

Munduko lehen literatura bezala, haurraren lehenengoa ere ahozkoa da, *entzuteko* ipuiak, imajinazio handiz apainduak eta buruz ikaserrazgarri egiteko dituen elementuaz hornituak.

Hara ritmoa, imajinaren mugimendu azkarra!

Ipuinez imajinazioa aberastu duen haurrak ba du bere baitan hazi ederrik.

Emari honek berak bultzatuko du gero haurra irakurketara, eta irakurtzeko bideak hartzen dituenean, literatura idatziko ipuinekin emango duen lehenengo pausoaren hurren erraz pasako da elaberrira (nobela, erriak...), eta poesia bera irakurtzera ere.

Baina gaur haurrari lehen aukera hura emateko, ipuinik entzungo ba du, *ipuin horiek idatzi egin behar dira*.

Eta haurrei behar bezala irakurriko bazaizkie, eta eragingarri izango diren irazkinak egingo bazaizkie, *honetarako gai izango diren irakasleak gertatu behar dira*.

Hara nola haurren bideak berehala idazlearen eta irakaslearen arazoetan sartzen gaituzte, hemen baitago, nire ustez, euskal literaturaren etorkizunerako nagusia den arazoa: 1-. Haurrentzako literatura egokia idazteko gai izango den idazlea, *hazia* bera sortu behar duena, bereziki gerratua izan behar du, eta 2-. hazi eder hori *ereiteko* gai izango diren irakasleak ere gaurdanik hazten hasi behar.

Haurrentzako idatzi behar duenak jakin behar luke lan delikatu eta fin batetan sartzen dela, eta honek bokazioa eskatzen duela; haurrak maite behar ditu, hurbiletik behartu eta herri aurreratuetan gai hontaz egiten direnak ikusiz gero, haurraren ahalmen aberatsenak lantzen ahalegindu. Bestalde, bertako hurrez ari garenez ba du gure herriak antzinako materiala ere, eta honetatik baliagarria dena erabili behar litzateke, tradizioaren bidea zuzena eta ordezkorik ez duena baita: hala ere, kontuan eduki behar da hemen gaurkotasuna deigarri dela, eta gaurko hurrek gaurkoak diren imajinazio bideak oinkatzeko egarri direla.

Zer behar du azken lan honetarako irakasle berriak?

Euskal literatura ezagutuz gero, senti eta maite behar duela, gero haurrei beharrezko diren maitasunez eta sentipenez ukitutako majia hortaz baliatuko ba da.

Zertarako?

Haurrak gehiago errespetatu eta hobeki formatzeko.